

# Bertsio linguistiko kontrajarriak Euskal Autonomia Erkidegoko Legeetan

Linguistic divergences in the Acts of the Autonomous Community of the Basque Country

David Rosales Reguera

DOI: <https://doi.org/10.47623/ivap-rvap.113.2019.07>

«Bizkaian da Guipuzkoan legue-gizonak euskera jakiteaz obari edo bentaja andia daukeela iñok eziñ ukatu lei».

Ebaristo Bustinza Lasuen «*Kirikiño*», 1902.  
«Bilbo-ko euskaldunentzat», *Ibaizabal*, 1902, 3. zk., 1.or.

**LABURPENA:** «Eta legeak gaztelaniaz kontrakoa badio?». Horixe bera da, hain zuzen ere, legea euskaraz aztertu, gaztelaniazko testua irakurri, eta biak bat ez datozela ohartzean sortzen den galdera. Sarritan gertatzen ez bada ere, batzuetan bertsio linguistiko kontrajarriak azaltzen dira lege-testu ofizialetan, izan euskara eta gaztelania linguistikoki urrun egoteak zaildu egiten duelako bi testuen arteko baliokidetasuna, izan, besterik gabe, zenbaitetan itzulpen-akatsak daudelako. Eta horrelako kasuetan, euskararen benetako koofizialtasunaren mugak agerian jartzen dira, segurtasun juridikoa jokoan egon daitekeelako Euskal Autonomia Erkidegoan. Bada, ikerlan honen helburua da aztertzea nola jardun behar den lege bereko euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak bat ez datozenean. Horretarako, Konstituzio Auzitegiaren doktrinan sakontzeaz gain, aztergai izan da Jurilinguistikaren alorrak lege-testu eleanitzen interpretazioan egin duen ibilbidea, bai Nazioarteko Zuzenbidean, bai Europar Batasuneko Zuzenbidean, baita Kanada edo Belgika bezalako sistema elebidunetan ere.

**HITZ GAKOAK:** Bertsio linguistiko kontrajarriak. Euskararen koofizialtasuna. Legeak. Jurilinguistika. Euskal Autonomia Erkidegoa.

**ABSTRACT:** «What if the Spanish version of the act says the contrary?». That is the question that arises when, after reading the act in Basque language, the Spanish text is examined, and there are some divergences. Although it does not happen very often, there are sometimes problems of linguistic divergences between official legal texts. This may be motivated by the difficulty of drafting equivalent versions, given the linguistic difference between Basque and Spanish, or even by occasional errors in translation. In such cases, the limits of the co-

officiality status of Basque are revealed, as legal certainty can be at risk in the Autonomous Community of the Basque Country. The purpose of the present study is to research how to proceed when the Basque and Spanish versions of the same act are not equivalent. This involves carrying out an in-depth study of the case-law of the Spanish Constitutional Court, as well as the experience of Jurilinguistics in interpretation of multilingual legislative texts in International Law, European Union Law, and in bilingual systems such as Canada or Belgium.

**KEYWORDS:** Linguistic divergences between versions. Co-officiality status of Basque language. Acts. Jurilinguistics. Autonomous Community of the Basque Country.

**RESUMEN:** «¿Y si la ley en castellano dice lo contrario?». Esta es la pregunta que surge cuando, después de analizar la ley en euskera, se procede a examinar el texto de esa misma ley en castellano, y encontramos divergencias entre ellas. Aunque esta situación no se dé con mucha frecuencia, hay veces que existen divergencias lingüísticas entre los textos legales oficiales. Puede estar motivado, bien porque el euskera y el castellano sean lenguas sin parentesco, hecho que dificulta la equivalencia entre ambos textos, o bien porque a veces existen fallos de traducción. En estos casos, se ponen en evidencia los límites de la cooficialidad del euskera, ya que puede estar en juego la seguridad jurídica en la Comunidad Autónoma del País Vasco. El objeto de este estudio es investigar cómo se debe actuar cuando las versiones en euskera y en castellano de una misma ley no son equivalentes. Para ello, además de profundizar en la doctrina del Tribunal Constitucional, también ha sido objeto de estudio la trayectoria que la Jurilingüística ha realizado en la interpretación de textos legales multilingües, tanto en el Derecho Internacional, como en el Derecho de la Unión Europea, así como en los sistemas bilingües de países como Canadá o Bélgica.

**PALABRAS CLAVE:** Divergencias lingüísticas entre versiones. Cooficialidad del euskera. Leyes. Jurilingüística. Comunidad Autónoma del País Vasco.

Trabajo recibido el 24 de septiembre de 2018.

Aceptado por el Consejo de Redacción el 18 de enero de 2019.

# Bertsio linguistiko kontrajarriak Euskal Autonomia Erkidegoko Legeetan

Linguistic divergences in the Acts of the Autonomous Community of the Basque Country

David Rosales Reguera

«Bizkaian da Guipuzkoan legue-gizonak euskera jakiteaz obari edo bentaja andia daukeela iñok eziñ ukatu lei».

Ebaristo Bustinza Lasuen «*Kirikiño*», 1902.  
«Bilbo-ko euskaldunentzat», *Ibaizabal*, 1902, 3. zk., 1.or.

**Aurkibidea:** I. Jurilinguistika, hizkuntza-aniztasuna, Zuzenbidearen adiera bakarraren printzipioa eta segurtasun juridikoa.—II. Legeen euskarazko bertsio ofizialen balio juridikoa.—III. Legeen bertsio linguistiko kontrajarriak bateratzea. 1. Bertsio linguistikoetako bat lehenesteko debekua. 2. Bertsio linguistikoak bateratzeko agindua.—IV. Elebitasun juridikoaren eragina juristen eguneroko jardunean. 1. Eleaniztasun juridikoaren eragina Nazioarteko Zuzenbidean, Euskal Autonomia Erkidegoarekin erlazioan. 2. Eleaniztasun juridikoaren eragina Europar Batasuneko Zuzenbidean, Euskal Autonomia Erkidegoarekin erlazioan. 3. Elebitasun juridikoaren eragina Kanadan, Euskal Autonomia Erkidegoarekin erlazioan. 4. Elebitasun juridikoaren eragina Euskal Autonomia Erkidegoan.—V. Bertsio linguistiko kontrajarriak murrizteko tresna juridikoak.—VI. Ondorioak.—VII. Bibliografia.

## I. Jurilinguistika, hizkuntza-aniztasuna, Zuzenbidearen adiera bakarraren printzipioa eta segurtasun juridikoa

Hizkuntzaren eta Zuzenbidearen elkargunea da Jurilinguistika; izatez, linguistikoki eratu eta adierazten dira kontzeptu guztiak Zuzenbidean.

Areago, kontzeptu horiek hizkuntzaren bidez eta hizkuntza batean (edo gehiagotan) sortzen dira; izan ere, Zuzenbideak ezin du gizartearekiko independente izan, eta hizkuntza, berez, gizartearen funtsezko osagaia da (1).

Hori dela eta, naturaren legeak baliozkoak dira inork ere sekula hitzez adierazi izan ez baditu ere; gizartearen legeek, ordea, sorburu bat eta bakarra dute: komunikazioa (2).

Eta komunikazioa bi hizkuntzatan edo gehiagotan gauzatzen denean, orduan lege-testu eleanitzak sortzen dira. Bada, Jurilinguistikaren aztergaietako bat da hainbat hizkuntzatan idatzita dauden testu juridikoen interpretazioa.

Alor horrek garrantzia berezia dauka Nazioarteko Zuzenbidean, baina baita Espainia edo Kanada bezalako sistema juridiko eleanitzetan ere, Urrutia Badiolak adierazi duenez:

«Juristak, batez ere herri elebidunetan, kezkatu datoz, hizkuntzen artekoak zuzenbidearen mailan sortzen dituen gai korapilatsu eta konpongaitzez. Orintsu arte herrien arteko zuzenbidearen aztergai zirenak egun estatu barruko autu-mautuak ere badira, testuen interpretazio juridikoak, esanahiak eta ondorioak zehaztu nahian» (3).

Egin-eginean ere, Jurilinguistika arduratzen da lege-testu bereko bertsio linguistikoen artean sor daitezkeen gatazkak jorratzeaz.

Hurrean ere, lege berbera aldi berean hainbat hizkuntzatan adierazita egotea, izatez, gizarte baten hizkuntza-aniztasunaren erakusgarri da.

Eta hizkuntza-aniztasuna da, López Basagurenen aburuz, Espainiako antolamendu juridikoaren oinarritzko printzipioetako bat, hiru arrazoi hauengatik: (a) Espainiako hizkuntzen arauketa Espainiako Konstituzioaren (EK) Atariko Tituluan jasota dago; (b) gaztelaniaz bestelako hizkuntzak ere babesten dira; eta, (c) hizkuntza horiei estatus juridiko garrantzitsua ematen zaie (4).

Era berean, itzulpena ezinbesteko tresna bilakatu da hizkuntza-aniztasuna bermatzeko, baita esparru juridikoan ere. Are gehiago, Douceten arabera, Zuzenbidea itzultzea Estatuaren betebeharra da, berez:

(1) SOLAN, L.; STEIN, D.; TIERSMA, P., «Introducing «Language & Law»», *International Journal of Language & Law*, 2012, 1. zk. DOI: 10.14762/jll.2012.n1.

(2) *Ibidem*.

(3) URRUTIA BADIOLA, A., «Euskararen jurilinguistika: alor berria ote?», *Jado: Boletín de la Academia Vasca de Derecho-Zuzenbidearen Euskal Akademiaren Aldizkaria*, 2005, 7. zk., 94. or.

(4) LÓPEZ BASAGUREN, A., «El pluralismo lingüístico en el Estado Autonomico», *Autonomies: revista catalana de dret públic*, 1988, 9. zk., 47. or.

«Estatu batek, hainbat hizkuntzaren arteko berdintasuna aitortzen duen unetik, eta hitzunei hizkuntza horietan justiziara jotzeko eskubidea aitortzen dien unetik, betebeharra du beharrezko diren bitartekoak eskaintzeko, Zuzenbidea hizkuntza horietan eskuragarri izan dadin.

Hortaz, itzulpena Estatuak duen tresnetako bat da, oinarritzko informazio juridikoa herritarren esku norbere hizkuntzan jartzeko, modu horretara, euren eskubideak egikari ditzaten» (5).

Horri lotuta, Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunak hau ezarri du 9.3 artikuluan:

«Aldeek konpromisoa hartu dute eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan emateko Estatuako lege-testurik garrantzitsuenak eta hizkuntza horien erabiltzaileei bereziki dagozkienak, testuak beste modu batean erabilgarri daudenean izan ezik» (6).

Edonola ere, itzulpen juridikoak bermatu behar duena, funtsean, segurtasun juridikoa da. Eta horretarako, Agirre Berezibarren hitzetan, «errespetu osoa izan behar zaio jatorrizko zentzuari, bi bertsioak erabat baliokideak izan daitezen» (7).

Horretarako, Spareren esanetan, «zaindu behar da itzulitako bertsioa jatorrizkoaren maila berdinean egotea, segurtasunari, egonkortasunari eta adiera-bakartasunari dagokienez, betiere, inguruabar juridikoa oso-oso kontuan hartuta» (8).

Hori dela eta, Euskal Autonomia Erkidegoaren (EAE) kasuan, Eusko Jaurlaritzak Itzulitzaile Zerbitzu Ofiziala (IZO) sortu du «itzulpenen zehaztasuna eta legezko baliokidetasuna bermatzeko». Modu horretara, Jaur-

(5) DOUCET, M., «Le bilinguisme au Canada et son effet. Impact sur les techniques de rédaction législative». ZZAA, *Eleaniztasuna eta teknika legegilea / Plurilingüismo y técnica legislativa*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Legebiltzarra / Euskal Gaien Institutua, Deustuko Unibertsitatea; 2001, 65. or.

(6) EUSKALTZAINDIA, Hizkuntza-zuzenbidea: *Testu-bilduma euskaraz*. Bilbo: Euskaltzaindia, 2007, 99. or.

Espainiak, gainera, barneratu du Europako Gutunaren 9.3 artikulua. Ikusi Europako Kontseiluaren 1992ko azaroaren 5eko Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna, Estrasburgon egina. Espainiaren atxikimendu-tresna: 2001eko irailaren 15eko EAO, 222. zk.

(7) AGIRRE BEREZIBAR, J.M., «Euskara Eusko Legebiltzarraren jardun ofizialean». ZZAA, *Eleaniztasuna eta teknika legegilea / Plurilingüismo y técnica legislativa...*, op. cit., 174. or.

(8) SPARER, M., «La stéréophonie législative, facteur de haute infidélité?», *Les Cahiers de Droit*, 1980, 21. zk., 602. or.

laritzak bete du Euskararen Legeak 12.2 artikuluan emandako agindua (9).

Hain zuzen ere, Espainiako antolamendu juridikoan, legeen bertsioetan hizkuntza-aniztasunaren eta segurtasun juridikoaren arteko oreka ezartzeaz arduratu da apirilaren 14ko 489/1997 Errege Dekretua, Legeak Autonomia Erkidegoetako hizkuntza koofizialetan argitaratzeari buruzkoa (10).

Zehatzago, arau horren Zioen Adierazpenean adierazitakoaren ildotik, Estatuko legeak hizkuntza koofizialetan ere argitaratzeko neurriak «bateragarria izan behar du, segurtasun juridikoko arrazoi nabariak direla eta, Zuzenbidearen adiera bakarraren printzipioarekin».

Horrenbestez, hainbat bertsio linguistiko dituzten legeak, Zuzenbidearen adiera bakarraren printzipioaren arabera interpretatu behar dira.

Dena dela, segurtasun juridikoaren bermeetako bat da, Kode Zibilaren 6.1 artikulua ezarri bezala (hemendik aurrera, KZ), «legeak ez ezagutzeak ez duela legeok ez betetzetik desenkusatzeko» (11).

Eta Espainiako herritarrek legeak gaztelaniaz ezagutzeko baino ez dutenez egin beharra, orduan kolokan gera daiteke beste hizkuntza koofizialetan idatzitako bertsioen benetako eragingarritasun juridikoa.

Hala ere, EAEren kasuan, euskara jakiteko egin beharrik ez duten erdalduen elebakarren ikuspegitik, erabat logikoa da Milian Massanak planteatzeko duen kezka:

«Nola gauzatuko litzateke arauen edukia ezagutzeko herritar orok duen eskubidea, posible izango balitz arauak hizkuntzetatik edozeinetan argitaratzea aldizkari ofizialetan, herritarrek ulertu zein ez?»

Herritar batzuk ezjakintasun-egoeran iraunaraztea litzateke horren emaitza, eta hori ez litzateke bat etorriko Zuzenbideko Estatu orotan nagusi izan behar duen segurtasun juridikoarekin; ezjakintasunak ondorio larriak ditu, orobat, kontuan hartuz gero modu zabalean onetsitako printzipioa, hots, legeak ez ezagutzeak ez duela legeok ez betetzetik desenkusatzeko» (12).

(9) Azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea, Euskararen erabilpena arauzkotzekoa (1982ko abenduaren 16ko EHAA, 160. zk.).

(10) 1997ko apirilaren 17ko EAO, 92. zk.

(11) 1889ko uztailaren 24ko Errege Dekretua, Kode Zibila argitaratzeko (1889ko uztailaren 25eko EAO, 206. zk.).

(12) MILIAN MASSANA, A., «La regulación constitucional del multilingüismo», *Revista Española de Derecho Constitucional*, 1984, 10. zk., 124-125. or.

Beraz, lege berean bertsio kontrajarriak daudenean, gaztelaniazko testua gailendu behar al da beti? Zein neurritan dute balio juridikoa legeen euskarazko bertsioek? Ba al dute gaztelaniazkoen bezainbesteko indar juridikorik?

Bestela esanda, nola bateratu hizkuntzen koofizialtasuna, Zuzenbidearen adiera bakarraren printzipioa eta segurtasun juridikoa?

## II. Legeen euskarazko bertsio ofizialen balio juridikoa

Espainiako hizkuntzen arteko koofizialtasunaren oinarria EKren 3. artikuluan dago, hurrengoa ezarri duenean:

«1. Gaztelania da Espainiako estatuaren hizkuntza ofiziala. Espainiar guztiek dute gaztelania jakiteko eginbeharra eta erabiltzeko eskubidea.

2. Espainiako beste hizkuntzak ere ofizialak izango dira haiei dagozkien autonomia-erkidegoetan, beraietako estatutuekin bat etorritik.

3. Espainiako hizkuntza-moten aberastasuna kultur ondarea da, eta ondare horrek begirune eta babes berezia izango du» (13).

Urrutia Badiolaren esanetan, EKren 3. artikulua aitortu du Espainia herrialde eleanitza dela, eta koofizialtasunaren arauketa juridiko hori eleaniztasun sozialaren isla da; horren oinarrian, gainera, zenbait printzipio daude, besteak beste, hizkuntza-askatasuna, integrazio-printzipioa, hizkuntza-hautu askea eta nortasunaren garapen askea (14).

Eta Espainiako Konstituzioak 3.2 artikuluan irekitako bidetik, Gernikako Estatutuak euskararen koofizialtasuna ezarri du 6. artikuluan, hurrengoa xedatzean:

«Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du Euskal Herrian gaztelaniarekin batera eta guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea» (15).

(13) 1978ko abenduaren 29ko EAO, 311. zk.

(14) URRUTIA BADIOLA, A., *Lengua vasca, cooficialidad lingüística y relaciones jurídicas inter privados. Análisis desde la perspectiva del euskera en el Derecho privado español, en el francés y en el de la Unión Europea*. Bilbo: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2016, 315. or.

(15) Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa, Euskal Herriko Autonomia Estatutoari buruzkoa (1979ko abenduaren 22ko EAO, 306. zk.).

Legeei dagokienez, horiek argitaratzearekin batera sortzen dituzte ondorioak, publikitate-printzipioarekin bat etorritz. Hala ezarri du KZren 2.1 artikulua:

«Legeak indarrean jarriko dira «Estatuko Aldizkari Ofizialean» oso-osorik argitaratu eta hogeigarren egunean, legeetan eurretan besterik xedatu ez bada».

Halatan, EAeri eragiten dioten aldizkari ofizialen artean, oro har, hiru dira haien edukia euskaraz ere argitaratzen dutenak.

Lehenik, EAO euskaraz ere argitaratzeko oinarria 489/1997 Errege Dekretuak ezarri du. Horren arabera, Estatuko Gobernuak eta Eusko Jaurilaritzak izenpetutako lankidetzaz-hitzarmenak zehaztuko du zein baldintzatan argitaratu ahal izango diren xedapenak EAOn.

Hain justu ere, 2011ko urriaren 11ko Ebazpenaren bidez argitaratu zen, legeak euskaraz argitaratzeko, Estatuko Administrazio Orokorrek eta EAeko Administrazio Orokorrek izenpetutako lankidetzaz-hitzarmena (16).

Hori dela eta, Lehendakartzaren ardura da euskarazko itzulpena egitea; ondoren, Jaurilaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak testuaren azken formatua egiaztatu behar du; eta, gero, EAoren Estatu Agentziari bidali behar zaio argitalpena egiteko.

Halaber, lankidetzaz-hitzarmena garatzeko, Eusko Jaurilaritzak 15/2012 Ebazpena eman zuen, Jaurilaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak egindako kudeaketa-gomendioa argitaratzeko (17).

Eta Akordioaren 2.5 atalak dioenez, «IZOren erantzukizuna izango da hizkuntza bietako bertsioen zehaztasunaren eta baliokidetasunaren gainekoa».

Bigarrenik, EHAA elebitan argitaratzea, berez, Euskararen Legearen 8.1 artikulua agindua da, bertan hurrengoa ezarri baita:

«Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan kokatutako herri-arginteez emandako arau-xedapen zein ebazpen ofizial orok bi hizkuntzetan idatzita egon beharko du zabalkunde ofiziala egiteko» (18).

(16) 2011ko urriaren 21eko EAO, 254. zk.

(17) 2012ko martxoaren 13ko EHAA, 52. zk.

(18) Esangura horretan, ERKOREKA GERVASIOK adierazi du «Euskararen Legearen 8.1 atalaren ondorioz, nolabait, gure elebitasun —sisteman, hizkuntza— eskubideek aurpegi aktibo bat ez eze, aurpegi pasibo bat ere badaukatela» (Erkoreka Gervasio, J. I., «Euskararen erabilpena arauz-kotzeko», *Revista Vasca de Administración Pública-Herri Arduralaritzako Euskal Aldizkaria*, 1992, 33. zk., 177. or.).



Horrez gain, azaroaren 23ko 296/1988 Dekretuak, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria araupetzen duenak, 3. artikuluan bi bertsioen arteko berdintasuna ezarri du:

«Euskeraz eta gazteleraz argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren testua eta bi hizkuntz horietan ofizial eta autentikotzat joko da» (19).

Hirugarrenik, Lurralde Historikoetako aldizkari ofizialetan ere bi bertsioen arteko berdintasuna ezarri da.

Arabian, azaroaren 20ko 13/2006 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofiziala arautzekoari buruzkoak, 6. artikuluan hauxe dio:

«Euskal alor publikotik iritsitako xedapen, ebazpen eta iragarki guztiak euskaraz eta gaztelaniaz argitaratuko dira Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean, eta ofizial eta benetakotzat joko da bi hizkuntzetan» (20).

Bizkaian, ekainaren 15eko 97/2009 Foru Dekretuak, Bizkaiko Aldizkari Ofiziala (BAO) arautzen duenak, 5. artikuluan honako hau dio:

«Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren testua euskaraz eta gaztelaniaz argitaratuko da aldi berean eta bi bertsioak izango dira ofizialak eta benetakoak, Euskararen Erabilpena arauzkotzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta horren garapenerako arautegian xedatutakoarekin bat etorritz» (21).

Gipuzkoan, martxoaren 27ko 5/2007 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala arautzen duenak, 4. artikuluan honela dio:

«Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, aldi berean, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan argitaratuko da, eta bi hizkuntzetako testuak ofizialtzat eta benetakotzat hartuko dira» (22).

Bestalde, euskaraz argitaratutako arauak, euskara ofiziala den lurraldeetan ez ezik, hortik kanpora ere izan ditzakete ondorioak.

---

(19) 1988ko abenduaren 14ko EHAA, 234. zk.

(20) 2006ko azaroaren 27ko Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofiziala, 136. zk.

(21) 2009ko ekainaren 30eko BAO, 122. zk.

(22) 2007ko apirilaren 20ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 77. zk.

Alabaina, Konstituzio Auzitegiak (KA) ezarri duenez, «lurraldetasuna da gaztelaniaren ofizialtasuna eta Espainiako beste hizkuntzen koofizialtasuna mugatzeko irizpidea» (23).

Era berean, «EKren 3.1 artikulua gaztelania jakiteko eginbehar orokorra ezarri du, Estatuko hizkuntza ofiziala den aldetik; eginbehar hori bat dator espainiar guztien hizkuntza komun bat badagoela aitortzen duten beste konstituzio-xedapen batzuekin, eta, edozein kasutan, presuntzioa dago [espainiarrek] gaztelaniaz badakitela, egoitza edo auzotasuna edozein direla ere» (24).

Kontrara, «ez da berdina gertatzen Espainiako beste hizkuntza koofizialekin, EKren 3.1 artikulua ez duelako horiek jakiteko eginbeharrak ezartzen; dena den, hori ezin da bereizkeriatzat hartu, izan ere, inguruabar batzuen ondorioz ezarri da gaztelania jakiteko eginbearra, baina hizkuntza koofizialen kasuan ez dira inguruabar horiek ematen» (25).

Dena dela, Zuzenbidearen adiera bakarraren printzipioaren arabera, legeek esanahi bakarra badute, orduan ez da zertan oztoporik izan euskara ofiziala ez den lurraldeetatik kanpora ere euskarazko bertsioa kontuan hartzeko; adibidez, Nafarroako eremu ez-euskaldunean.

Horrenbestez, legeen euskarazko bertsioak gaztelaniazkoak bezain ofizialak eta kautoak dira, eta bi-biek balio juridiko bera dute (26).

Are gehiago, Ezquiaga Ganuzasen hitzetan, «xedapen oro elebitan idatzita egotea, berez, koofizialtasun-printzipioaren nahitaezko ondorioa da» (27).

Horren erakusle, KAK euskarazko bertsioa erabili zuen EAEko lege baten artikulua bat EKrekin bateragarria zela adierazteko (28):

(23) Ekainaren 26ko 82/1986 KAE (ikus 3. Z.O.).

(24) Ekainaren 26ko 84/1986 KAE (ikus 2. Z.O.).

Edonola ere, maiatzaren 25eko 74/1987 KAEk zehaztu duenez, gaztelania jakiteko presuntzioa *iuris tantum* erakoa da, eta, beraz, presuntzioa kasu honetan apur daiteke: atxilotuak edo presoak era sinetsgarrian alegatzen badu gaztelaniaz ez dakiela edo nahikoa ez dakiela, edo eginbide polizialen aribidean inguruabar hori agerian geratzen bada; orduan, interpretearen laguntza izateko eskubidea izango du, nahiz eta atxilotua edo preso espainiarra izan.

Ikusi PUNSET BLANCO, R., «Algunas cuestiones controvertidas en materia de cooficialidad lingüística». VERNET I LLOBET, J. eta PUNSET BLANCO, R., *Lenguas y Constitución*. 1. argitaraldia. Madril: lustel, 2007, 80. or.

(25) *Ibidem*.

(26) Ikusi AGIRRE GARAI, J., «Euskarazko itzulpen juridiko-administratiboaren balio ofiziala», *Senez: itzulpen aldizkaria*, 1997ko urtarrila.

(27) EZQUIAGA GANUZAS, F.J., «Algunas cuestiones sobre multilingüismo e interpretación jurídica». ZZAA, *Euskararen lege-araubideari buruzko jardunaldiak / Jornadas sobre el régimen jurídico del euskera*. COBREROS MENDAZONA, E. (koord.). Oñati: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 1990, 355. or.

(28) Honako lege hau izan zen eztabaidagai: azaroaren 25eko 27/1983 Legea, Autonomia-Elkarte Osorako Erakundearen eta bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Erakundearen Arteko Harremani buruzkoa (Lurralde Historikoen Legea).

«Pero es que, además, la ley emplea, junto a las expresiones “distribución” o “distribuir” [en la versión en euskera, banatuko (art. 20.1), banatu (art. 22.1), etc.] la designación de “aportaciones” [en euskera: *ekarketek*, art. 22; *ekarri*, art. 22.1; *ekarketa* (art. 22.6), etc.] para referirse a la contribución de las Haciendas Forales procedente de los ingresos concertados, y destinada a subvenir a las necesidades de las Instituciones Comunes.

Y estas mismas expresiones, tanto “distribución” como “aportación” son las empleadas por el Estatuto de Autonomía en su art. 42 a), a prever que “una Ley del Parlamento Vasco establecerá los criterios de distribución (eusk. *banaketa*) equitativa y el procedimiento por el que, a tenor de aquéllos, se convendrán y harán efectivas las aportaciones (eusk. *aportazioak*) de cada Territorio Histórico” » (29).

Euskarazko eta gaztelaniazko testuei, legez, balio juridiko bera ezarzteak, aldiz, ez du konpontzen bertsio kontrajarrien arteko arazoa.

### III. Legeen bertsio linguistiko kontrajarriak bateratzea

Bereizi beharreko kontzeptuak dira araua eta enuntziatua, araua, izatez, enuntziatu juridikoa interpretatzearen ondorioa baita. Bada, argitalpen elebidunen kasuan, bi enuntziatu desberdin daude, bakoitza hizkuntza batean, eta bi-biek dute esanahi bera izateko, eta, hortaz, arau bera adierazteko asmoa (30).

Hala ere, gerta daiteke, hizkuntza bakoitzaren testuinguru linguistikoaren eraginez, bi bertsioak interpretatu eta gero, araua (esanahia) desberdina izatea batean eta bestean (31).

Beraz, batzuetan, euskararen eta gaztelaniaren artean erabateko balio-kidetasuna lortu ezin delako, edo, besterik gabe, itzulpen-akatsak daudelako, lege berean bertsio linguistiko kontrajarriak agertzen dira.

Horren adibide da apirilaren 7ko 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundei buruzkoa (32); zehatzago, lege horren 81.6 artikulua arau bera desberdina ezarri die euskaraz eta gaztelaniaz sektoreko edo lurralde-eremu mugatuetako galdeketei, eta euskaraz aukerazkoa dena, gaztelaniaz, ordea, derrigor bete beharrekoa da:

(29) Apirilaren 26ko 76/1988 KAE (ikus 8. Z.O.).

(30) Ezquiaga Ganuzas, E., *op. cit.*, 356. or.

(31) *Ibidem*.

(32) 2016ko apirilaren 14ko EHAA, 70. zk.

«Udalerriek —ordenantza, erregelamendu edo, halakorik izan ezean, osoko bilkuraren erabaki bidez— bozketari, zenbaketari eta prozesuaren kontrolari eragiten dieten prozedurazko alderdiak ezarri *ahal izango dituzte*, bai eta izaera teknikoko beste kontu batzuk ere».

«Los municipios por medio de ordenanza o reglamento o, en su defecto, a través del acuerdo del pleno, *establecerán* aquellos aspectos procedimentales que afecten a la votación y escrutinio y de control del proceso, así como otros de carácter técnico» (33).

Beste adibide bat da, hain zuzen ere, Ostalaritzako edo horrelako jarduerak ipintzeari eta euren funtzionamenduari buruzko Bermeoko Ordenantza; izan ere, 43.1 artikulua b) atalak, hizkuntzaren arabera, arrazoi desberdinak ezarri ditu Udalak emandako lizentziak iraungitzeko:

«Aurreko A) atalean ezarritakoaz kanpo, sei (6) hilabete-ren barruan obra txikiak edo instalazinoa amaitu ez badira eta hamabi (12) hilabeteren barruan obra nagusiak amaitu ez badira».

«Cuando, con independencia de lo establecido en el apartado A), no hubiesen concluido las obras o la instalación en el plazo de seis (6) meses para las obras menores y doce (12) para las mayores» (34).

Beraz, Bermeoko Udalak lizentzia eman zuenetik 12 hilabete igaro badira, eta herritarrak obra nagusiak bukatu baditu, nahiz eta oraindik negozioa abian jarri gabe egon, Udalak ezin du lizentziarik kendu, betiere euskarazko bertsioaren arabera.

Gaztelaniazko testuaren arabera, berriz, Udalak berdin-berdin kenduko du lizentzia, obrak bukatu arren, negozioa epe horretan abian jarri ez badu. Eta bertsio bat bestea bezain ofiziala eta kautoa da, legez.

(33) Gerora, Udal Legearen hutsen zuzenketa argitaratu zen, baina zuzenketa bere horretan utzi zuen 81.6 artikulua (ikus *Hutsen Zuzenketa*, honako lege honena: «2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeek buruzkoa»; 2016ko ekainaren 29ko EHAA, 123. zk.).

(34) 2013ko azaroaren 19ko BAO, 221. zk.

## 1. Bertsio linguistikoetako bat lehenesteko debekua

Bertsio linguistikoen arteko interpretazio-arazoak argitu nahian, apirilaren 18ko 7/1983 Legeak, Kataluniako hizkuntza-normalizazioari buruzkoak, 6.1 artikuluan ezarri zuen katalanezko testua nagusitu behar zela:

«Kataluniako Parlamentuak onartzen dituen legeak aldi bereko edizioetan argitaratu behar dira, katalanez eta gaztelaniaz, «Diari Oficial de la Generalitat» delakoan. Parlamentuak gaztelaniazko bertsio ofiziala egin behar du. Zalantzazko interpretazioak izanez gero, katalanezko testua izango da kautoa. «Estatuko Aldizkari Ofizialean» argitaratzeari dagokionez, horri buruzko lege-arauan ezarritakoa bete behar da» (35).

Baina KAK Konstituzioaren aurkakotzat hartu zuen katalanezko testua izatea, zalantzazko interpretazioak izanez gero, lehentasuna izan behar zuen bertsioa (36).

Batetik, katalana lehenesten bada, urratzen dira katalana jakiteko egin-beharrik ez duten herritarren segurtasun juridikoa (EKren 9.3 artikulua) eta babes judizial eragingarria izateko eskubidea (EKren 24.1 artikulua); izan ere, katalana ez dakitela alega dezakete. Areago, ezin da onartu katalanezko bertsioa nagusitzea, Kataluniako Parlamentuko legeek Kataluniatik kanpo ere ondorioak izan ditzaketelako (37).

Bestetik, arauak hierarkizatzeari buruzko erabakia Estatuari baino ez dagokio, EKren 149.1.8 artikulua araberan, arauen aplikazioari buruzko erregeleak horien interpretazioa ere barnean hartzen dutelako (38).

Nolanahi ere, balio juridiko loteslerik izan ez arren, Rubio Llorentek KAREN erabakia kritikatu zuen berak emandako boto partikularrean.

Bere ustez, 6.1 artikulua helburu bakarra da zehaztea zein testu den Kataluniako Parlamentuak benetan eztabaidatu eta bozkatu duena, eta horretarako eskumena Kataluniako Parlamentuak baino ez du (39).

(35) 1983ko apirilaren 22ko Kataluniako Generalitatearen Aldizkari Ofiziala, 322. zk.

(36) Ekainaren 26ko 83/1986 KAE (ikusi 3. Z.O.).

(37) *Ibidem*. Zentzu berean, ekainaren 23ko 123/1988 KAE (ikusi 3. Z.O.), Balearretako apirilaren 29ko 3/1986 Legeak, Hizkuntza Normalizazioari buruzkoak, hau ezarri zuelako 7.1 artikuluan: «zalantzazko interpretazioak izanez gero, testu bakarra katalanez idatzitakoa izango da» (1986ko uztailearen 16ko EAO, 168. or.).

(38) FABEIRO FIDALGO, P., *El derecho de usar y el deber de conocer las lenguas en la Constitución Española de 1978*. 1. argitaraldia. Madril: lustel, 2013, 171-172. orr.

(39) Ekainaren 26ko 83/1986 KAE (ikusi Boto Partikularra).

Modu horretara, gaztelaniatzko testutik ondorioztatzen bada katalanezko testuarekin bateragarri ez den interpretazioa, orduan baztertu egin behar da gaztelaniatzko testuaren ulkerera hori (40).

Halaber, boto partikularrean gaineratu zuenez, «Kataluniako Parlamentuak onetsitako legeen gaztelaniatzko bertsio ofiziala egon arren, horrek ez ditu legegile bihurtzen Generalitateak bertsio hori egiteko erabiltzen dituen itzultzaileak» (41).

Aitzitik, ez da iritzi berekoa Agirre Garai, bestelako ikuspegia duelako itzultzaileen eginkizunari eta itzulpenen balioari dagokienez.

Gaia EAEn kokatu, eta dio «gaztelaniatzko testua prestatu duen funtzionario erdalduna bezala, itzultzailea ere ez dela legegilea, baina bai legegilea edo lege-asmoaren idazlaria, gaztelaniatzko testu-zirriborroa idatzi duen funtzionario erdalduna bezainbestekoa» (42).

Horrez gain, bere hitzetan, «itzulpenaren helburua, legeei dagokienez, ez da gaztelaniatzko testuak zer esaten duen euskaldunari jakinaraztea, ez-pada ezarri nahi diren arauak euskaldunari euskaraz jakinaraztea» (43).

Dena dela, Biguri Otxoa de Eribek adierazitakoaren ildotik, «politikariek egiatan bertsio bakarra eztabaidatu eta fiskalizatzen dute: gaztelaniatzkoa». Bestela esanda, salbuespenak salbuespen, «euskarazko bertsioari buruzko eztabaidarik ez da egoten, eta jakintzat ematen dute bi bertsioak berdinak eta zehatzak direla (hau da, itzulpena zuzena eta zehatza dela)» (44).

EAEn ordezkari politikoa izateko, gainera, ez dago hizkuntza-eskakizunik; hortaz, posible da Legebiltzarrean, Batzar Nagusietan edota udaletako Osoko Bilkuretan ordezkari euskaldunik gabeko talde politikoak egotea. Eta horrek, berez, zaildu egiten du euskarazko lege-testuen sinesgarritasuna.

Gaztelaniatzko bertsioari lehentasuna ematea, ordea, ez dator bat hizkuntzen koofizialtasuna gorpuzten duen ezaugarrietako batekin, alegia, «koofizialtasuna dagoen lurraldeetan, lege-testuek balio juridiko bera dutela bertako botere publikoek hizkuntzetako bat zein bestea erabili» (45).

Horrela, Espainiak bete du Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren 9.2 artikulua a) atala, Espainiak 2001ean barneratu zuena:

(40) *Ibidem*.

(41) *Ibidem*.

(42) AGIRRE GARAI, J., «Legegintzazko teknika eta idazketa elebiduna instituzioetan». ZZAA, Eleaniztasuna eta teknika legegilea / Plurilingüismo y técnica legislativa..., *op. cit.*, 292. or.

(43) *Ibidem*.

(44) BIGURI OTXOA DE ERIBE, K., «Elebitasuna Arabako Biltzar Nagusietan». ZZAA, Eleaniztasuna eta teknika legegilea / Plurilingüismo y técnica legislativa..., *op. cit.*, 219. or.

(45) Ekainaren 26ko 82/1986 KAE (ikusi 3. Z.O.).

«2. Aldeek hartu dituzten konpromisoak: a) Estatu batean ezarritako egintza juridikoen baliozkotasuna ez baztertea, egintzok eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza batean erredaktatuta egote hutsagatik» (46).

## 2. Bertsio linguistikoak bateratzeko agindua

KAk onartu bezala, lege-hutsunea dago elebitan era ofizialean argitaratutako lege-testuen interpretazio-arazoak ebazteko (47).

Hori dela eta, KAk agindu du zer egin bertsio linguistikoaren artean zalantzako interpretazioak izan daitezkeen kasuetan: lege bereko bi bertsioak bateratu behar dira (48).

Beraz, KAren arabera, bertsioetako bat iluna bada, KZren 3.1 artikuluan ezarritako elementu interpretatzaileak erabili behar dira; elementu horietako bat da, hain zuzen ere, beste hizkuntza koofizialean idatzitako bertsioa (49).

Arean ere, lege bereko bertsio linguistikoak «interpretazioaren elementu bateratzaile» dira (50).

Horren ondorioz, katalana ofiziala den lurraldeetan, adibidez, «gaztelaniazko testuan, katalanezko testua bezain kautoa den horretan, zalantzako pasarte bat badago, katalanezko testuak zeregin nabarmena izango du hori interpretatzeko orduan; eta alderantziz ere gauza bera gertatuko da, hori baita KZren 3.1 artikulua interpretazio-erregelak aplikatzearen ondorioa» (51).

Hortaz, bertsio linguistikoetako batek sortzen duen zalantzaren iturburua bada hori bezain ofiziala eta kautoa den testuak ez duela arauketa bera ezarri, orduan bi bertsioak bateratu beharko dira.

Horretarako, KZren 3.1 artikuluan jaso diren elementu interpretatzaileak aztertu behar dira, eta, horren arabera, erabaki, hain zuzen ere, bertsioetako zeinek adierazten duen hobeto legearen benetako zentzua (52).

(46) Euskaltzaindia, *op. cit.*, 98. or.

(47) Ekainaren 26ko 83/1986 KAE (ikus 3. Z.O.): «Estatuko legegileak berriaz aurreikusi ez arren elebitan era ofizialean argitaratutako lege-testuen interpretazio-arazoak, Autonomia Erkidegoek ez dute lege-hutsune hori betetzeko eskumenik».

(48) *Ibidem*.

(49) *Ibidem*.

(50) *Ibidem*.

(51) *Ibidem*.

(52) Honela dio KZren 3.1 artikulua: «Arauk euren hitzez-hitzeko esanguraren arabera interpretatuko dira, betiere, testuinguruari, aurrekari historikoei eta legegintzako aurrekariari eta arau horiek aplikatu behar diren garaiko gizarte-errealitateari lotuta, eta, batik bat, arauen espiritua eta xedea kontuan hartuta».

Hori berori baieztatu du Duarte i Montserrat: «bertsioak bat ez badatoz, edo interpretazioa zalantzarria bada, orduan KZren 3.1 artikulua aplikatu behar da, kontuan hartuz bertsioetako bakoitza sortzean egon diren inguruabarrak» (53).

Bestela esanda, zehaztu behar da bertsioetako zein den, kasuan kasuan, legearen interpretaziorako elementu bateratzailea.

Halatan, Duarte i Montserrat azaltzen duenez, KAK ezarritako aginduak, praktikan, katalanezko bertsioari ematen dio lehentasuna, betiere «legegintzako aurrekariak» kontuan hartuz gero; izan ere, Kataluniako Parlamentuan katalana erabiltzen da legegintza-prozesuetan eta, ondoren, Parlamentuak bertako itzultzaileek idatzi duten gaztelaniazko testua berretsi baino ez du egiten (54).

Horrenbestez, EAEn legegintzako izapideak gaztelaniaz gauzatzen diren kasuetan, euskarazko bertsioa legearen interpretazioaren elementu bateratzailea izateko baldintza izango da euskarazko bertsioak hobeto islatzea legearen benetako zentzua, betiere «testuingurua», «aurrekari historikoak», «gizarte-errealitatea» eta «arauen espiritua eta xedea» aintzat hartuta.

Esate baterako, konstituzio-aurkakotasun auzi bat tarteko, KAK ezarri zuen arau baten katalanezko bertsioa Konstituzioaren aurkakoa zela; horren ondorioz, gaztelaniazko bertsioa aplikatu behar zen (55).

Zehatzago, uztailaren 12ko 1/1990 Legegintzako Dekretuak, Hirigintza-aren arloan Katalunian indarrean dagoen legeriaren testu bateratua onartzekoak, 8. xedapen iragankorrean arauketa desberdina ezarri zuen gaztelaniaz eta katalanez (56):

«De conformidad con la Ley 7/1987, de 4 de abril, en tanto no se apruebe el Plan Territorial Parcial dentro del ámbito de las comarcas del Barcelonès, el Baix Llobregat, el Maresme, el Vallès Occidental y el Vallès Oriental, la iniciativa de la modificación del Plan General Metropolitano y de la Revisión del Programa de actuación corresponde a la Comisión de Urbanismo de Barcelona. Si la modificación del Plan afecta a elementos con una incidencia territorial limitada a un término municipal o a una comarca, la iniciativa corresponderá a los entes locales interesados».

(53) DUARTE I MONTSERRAT, C., «Textos bilingües». ZZAA, *La calidad de las leyes*. SÁINZ MORENO, F. (koord.) eta DA SILVA OCHOA, J.C. (koord.). Vitoria-Gasteiz: Eusko Legebiltzarra, 1989, 192. or.

(54) DUARTE I MONTSERRAT, C. «Los retos de la traducción legislativa: la experiencia de Cataluña». ZZAA, *Eleaniztasuna eta teknika legegilea / Plurilingüismo y técnica legislativa...*, op. cit., 123. or.

(55) Apirilaren 13ko 51/2004 KAE.

(56) 1990eko uztailaren 13ko Kataluniako Generalitateko Aldizkari Ofiziala, 1317. zk.



Katalanezko bertsioan, ordea, azken esaldiak honela zioen:

«Si la modificació del Pla afecta elements amb una incidència territorial limitada a un terme municipal o a una comarca, la iniciativa correspon també als ens locals interessats».

Beraz, katalanezko testuak Plangintza aldatzeko prozedura hasteko eskumena, udalei ez ezik, Autonomia Erkidegoari ere aitortu zion (Bartzelonako Hirigintza Batzordea, izatez, Generalitatearen organoa da), nahiz eta tokiko interesa baino ez ukitu (57).

Hori dela eta, KAK ezarri zuen katalanezko bertsioa (*també*) Konstituzioaren aurkakoa zela, toki-autonomiarekin bateragarria ez izateagatik.

Nolanahi ere, KAK Plangintzaren deuseztasunaren ondorioak mugatu zituen; hori dela eta, katalanezko bertsioa aplikagarri zitzaien, epaia EAOn argitaratu aurretik, Generalitateak behin betiko onartutako aldaketa guztiei, bi kasutan izan ezik:

- a) Aldaketak aurkaratu baziren, zuzenean nahiz zeharka, eta oraindik horri buruzko ebazpenik ez bazegoen.
- b) Aldaketak behin betiko onesteko akordioen aurka oraindik ere posible bazen errekurtsio zuzena jartzea (58).

Horrela, hirigintza-esparruan segurtasun juridikoa bermatzeaz gain, KAren ebazpenak hizkuntza-eskubideen esparruan ere bermatu zuen segurtasun juridikoa.

Modu horretara, legeen bertsio linguistiko kontrajarriak bateratzeko aginduaren bidez, Espainiako antolamendu juridikoak bat egin du nazioarteko esparru juridikoetan halako egoerei ematen zaien irtenbidearekin; eta horrek, berez, eragina du juristen eguneroko jardunean.

#### IV. Elebitasun juridikoaren eragina juristen eguneroko jardunean

Lege bereko bertsio linguistikoak bateratzeko aginduak nazioarteko esparru juridikoetan aritzen diren juristen pareko egoera ezarri die EAEko profesional juridikoei.

Gaur egun, beraz, bertsio linguistiko bakarrarekin ez dago fidatzerik ez Nazioarteko Zuzenbidean, ez Europar Batasuneko (EB) Zuzenbidean, baina ezta EAEko esparru juridikoan ere.

(57) Apirilaren 13ko 51/2004 KAE (ikusi 12. Z.O.).

(58) Apirilaren 13ko 51/2004 KAE (ikusi 15. Z.O.).

Azken finean, Espainiako antolamendu juridikoak bat egin du Nazioarteko Zuzenbidearekin eta Europar Batasuneko Auzitegiaren (EBA) jurisprudentziarekin, baina baita Kanadako sistema juridiko elebiduneari jarraitzeko moduarekin ere.

### 1. Eleaniztasun juridikoaren eragina Nazioarteko Zuzenbidean, Euskal Autonomia Erkidegoarekin erlazioan

Eleaniztasuna Nazioarteko Zuzenbidearen oinarritzko ezaugarrietako bat da. Bada, 1969ko maiatzaren 23ko Vienako Konbentzioak, Tratatuaren Zuzenbideari buruzkoak, 33. artikuluan ezarri du nola interpretatu behar diren tratatu eleanitzak (59).

Zehatzago, erregela hauek erabili behar dira bi hizkuntzatan edo gehiagotan kautotu diren tratatuak interpretatzeko:

«1. Tratatu bat bi hizkuntzatan edo gehiagotan kautotu denean, oso-osoko ondoreak izango ditu, modu berean, hizkuntza horietan guztietan, salbu eta Tratatuak ezartzen duenean edo horren alderdiek adosten dutenean, testuak bat ez bada toz, testuetako bat gailenduko dela.

2. Tratatuaren bertsio bat badago eta hori idatzita dagoen hizkuntzan ez bada kautotu, Tratatuak hala ezartzen duenean edo horren alderdiek hala adosten dutenean baino ez da bertsio hori testu kautotzat hartuko.

3. Tratatuaren terminoek testu kauto guztietan esanahi bera dutela uste izango da.

4. Testu kautoak konparatzeak agerian uzten duenean esanahien arteko desberdintasuna dagoela, eta hori ezin bada konpondu 31. eta 32. artikuluetan aplikatuz, orduan Tratatuaren objektua eta xedea kontuan hartu, eta testu horiek hobeto bateratzen dituen esanahia erabiliko da, salbu eta 1. paragrafoaren arabera testuetako bat gailentzen denean».

Hortaz, jurista batek nazioarteko tratatuak aztertu behar dituzenean, hizkuntza batean baino gehiagotan egin behar du lan, gerta daitekeelako testu kauto guztiek arauketa berbera ez ezartzea.

Lege-testu eleanitzen interpretazio egokia egitea, gainera, ezinbesteko kontua izan daitekeela erakutsi du *LaGrand* auziak (60)

(59) 1969ko maiatzaren 23ko Tratatuaren Zuzenbideari buruzko Vienako Konbentzioa, Vienan onartutakoa. Espainiaren atxikimendu-tresna: 1980ko ekainaren 13ko EAO, 142. zk.

(60) 2001eko ekainaren 27ko NJGren Epaia, *LaGrand* auzia (Alemania vs. Ameriketako Estatu Batuak) ebazten duena.

1999ko martxoaren 2an, Alemaniak AEBren aurka egin zuen Nazioarteko Justizia Gortearen (NJG) aurrean, 1963ko Kontsul Harremanei buruzko Vienako Konbentzioaren 36. artikulua urratzeagatik(61).

Izan ere, Arizonako Estatuak bi alemaniar kondenatu zituen heriotza-zigorera, Karl eta Walter LaGrand, baina haien eskubideen berri eman gabe, eta une prozesal egokian Alemaniaren laguntza kontsularra izateko aukera eskaini gabe.

Salaketarekin batera, Alemaniak kautela-neurria eskatu zion NJGri, AEBk geldiaraz zezan Walter LaGranden exekuzioa, hurrengo egunerako baitzegoen aurreikusita, harik eta NJGk azken ebazpena eman arte; bere anaia Karl lehenago exekutatu zuten, otsailaren 24an.

Egin-eginean ere, hurrengo egunean, 1999ko martxoaren 3an, NJGk kautela-neurria onartu, eta AEBri adierazi zion eskura zituen neurri guztiak har zitzan, prozedura aribidean egon bitartean, Alemaniako herritarra ez exekutatzeko.

Bada, NJGren Estatutuaren 41. artikulua ingelesez edo frantsesez irakurriz gero, bi horiek baitira Gortearen hizkuntza ofizialak, desberdina da kautela-neurriek duten izaera.

Ingeleseko bertsioaren arabera, NJGk adierazitako kautela-neurriak gomendio hutsa dira, eta zehaztu baino ez dute egiten alderdiek zein neurri hartu beharko lituzketen:

«1. The Court shall have the power to indicate, if it considers that circumstances so require, any provisional measures which *ought to be* taken to preserve the respective rights of either party.

2. Pending the final decision, notice of the measures *suggested* shall forthwith be given to the parties and to the Security Council».

Frantsesezko bertsioak, aldiz, dio NJGk ahalmena duela zehazteko alderdi bakoitzak zein neurri hartu behar dituen:

«1. La Cour a le pouvoir d'indiquer, si elle estime que les circonstances l'exigent, quelles mesures conservatoires du droit de chacun *doivent être* prises à titre provisoire.

2. En attendant l'arrêt définitif, *l'indication* de ces mesures est immédiatement notifiée aux parties et au Conseil de Sécurité».

(61) 1963ko apirilaren 24ko Kontsul Harremanei buruzko Vienako Konbentzioa. Espainiaren atxikimendu-tresna: 1970eko martxoaren 6ko EAO, 56. zk.

Interpretazioak interpretazio, Arizonako Estatuak egun hartan bertan, arratsaldean, hil zuen Walter LaGrand.

Gerora, prozeduran zehar, NJGren aurrean AEBk defendatu zuen Estatutuaren 41. artikulua bidez zehaztutako kautela-neurriak, izatez, ez zirela arau-emaileak; aitzitik, kautela-neurriak betetzea aukerazkoa zen, ingelesezko bertsioan «*indicate*» (zehaztu) erabiltzen delako, *order* (agindu) erabili beharrean; «*ought*» (beharko luke), *must* (behar du) beharrean; eta «*suggested*» (gomendatutako), *ordered* (agindutako) beharrean (62).

Hori ikusita, NJGk Tratatuaren Zuzenbideari buruzko Vienako Hitzarmenaren 33.4 artikulua aplikatu zuen, hurrengo erabakiz: «41. artikulua arabera zehaztutako kautela-neurriak bete beharrekoak ez direla esatea, berez, xedapen horren objektuaren eta xedearen kontrakoa litzateke».

Hurrean ere, horren funtsa da alderdien eskubideak zaintzea, eta ekiditea eskubide horiek kaltetu daitezzen; hori dela eta, frantsesez idatzitakoa da bertsio egokia.

Gorteak gaineratu zuenez, Estatutuaren prestatze-lanetan, frantsesezko testuan «*indiquer*» (zehaztu) hitza hautatu zen, «*ordonner*» (agindu) beharrean, adierazteko Gorteak ez zeukala bitarteko propiorik bere ebazpenen betearazpena ziurtatzeko; alegia, argi gera zedin, azken buruan, Estatuaren esku zegoela bere ebazpenak betearaztea (63).

Horrenbestez, NJGk ebatzi zuen AEBk ez zituela bete 1999ko martxoaren 3an zehaztutako derrigorrezko kautela-neurriak. Hori dela eta, Gorteak 2001eko ekainaren 27an ebatzi zuen AEBk Vienako Hitzarmenaren 36. artikulua urratu zuela eta, ondorioz, LaGranden aurkako zigor-prozedura, izatez, deuseza izan zela.

Hortaz, frantsesezko eta ingelesezko testuak baliokideak izan balira edo, behintzat, hasieratik Estatutuaren bertsio linguistikoaren arteko interpretazioa modu egokian egin izan balitz, baliteke Walter LaGrand gaur egun oraindik ere bizirik jarraitzea.

Eta *LaGrand* auziaren harira, Edenek esana da «nazioarteko jurista orok egon beharko lukeela jabetuta eleaniztasunak dituen ondorioez» (64).

Bada, Tratatu bera ingelesez, frantsesez edota alemanez irakurri behar dituen jurista bezalaxe, euskararen koofizialtasunaren eraginez, EAEko profesional juridikoa ere behartuta dago lege-testua euskaraz eta gaztelaniaz irakurtzera, betiere elebitan dagoen legeekin lan egiten duenean.

Are gehiago, posible da Nazioarteko Tratatuak euskaraz ere aztertu behar izatea. Izan ere, azaroaren 27ko 25/2014 Legeak, Nazioarteko Tra-

(62) *LaGrand*, 100. oinarria.

(63) *LaGrand*, 107. oinarria.

(64) EDEN, P., «Plurilingual treaties: aspects of interpretation». ORAKELASHVILI, A. eta WILLIAMS, S. (editoreak): *40 years of the Vienna Convention on the Law of Treaties*. Londres: British Institute of International and Comparative Law, 2010, 182. or.

tatu eta Akordioan, 13.2 artikuluan aukera ezarri du nazioarteko tratatuak euskaraz ere idatzita egoteko (65):

«Espainiak sinatutako aldebiko nazioarteko tratatuak espainieraz idatzita egongo dira beti, eta hala jasoko da horietan; nolana ere, Espainiako autonomia-erkidegoetan ofizial diren beste hizkuntza batzuetan ere jaso ahalko dira, edota atzerriko hizkuntzetan» (66).

Kasu horretan, gainera, Espainiako Estatu Kontseiluak, 35.5 artikulua-  
ren arabera, nazioarteko tratatu baten aldebakarreko interpretazioa egiten duenean, euskarazko testua ere derrigorrean aztertu behar du (67):

«Espainia alderdi den nazioarteko tratatu baten interpretazioari eta betearazpenari buruzko zalantzak eta desadostasunak Estatu Kontseiluak ebatziko ditu, Estatu Kontseiluaren apirilaren 22ko 3/1980 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera; Kanpo Arazoetako eta Lankidetzarako ministroak igorriko dio auzia, gaiaren gainean eskumena duen ministerioarekin koordinatuta».

## 2. Eleaniztasun juridikoaren eragina Europar Batasuneko Zuzenbidean, Euskal Autonomia Erkidegoarekin erlazioan

EBko arauak erakundearen 24 hizkuntza ofizialetan daude idatzita (68). Eta ezaugarri hori, Ordóñez Solísen arabera, Europaren integrazio-prozesuaren bereizgarrietako bat da (69).

Hala berretsi du, gainera, Europako Parlamentuak, irmo, hizkuntza-aniztasunaren izenean, 1994ko abenduan Frantziako Europako Gaietarako

(65) 2014ko azaroaren 28ko EAO, 288. zenbakiaren euskarazko gehigarria.

(66) Horra hor aukera, beraz, euskarazko testuak oso-osoko ondoreak euskararen lurralde guztietan izateko: Espainiak eta Frantziak aldebiko nazioarteko tratatua egitea, eta hori euskaraz ere idatzita egotea.

(67) Ikusi ARRIETA IDIAKEZ, F.J., «Euskara modu egokian erabiltzen ote da zuzenbidean?», Deia, 2016ko abenduaren 2a.

(68) Europako Ekonomia Erkidegoko Kontseiluaren 1958ko apirilaren 15eko 1 zenbakiko Erregelamenduaren, Europako Ekonomia Erkidegoko hizkuntza-araubidea ezartzekoaren, 1. artikuluan zerrendatzen dira EBko hizkuntza ofizialak: alemana, bulgariara, daniera, errumaniera, eslovakiera, esloveniera, estoniera, finlandiera, frantsesa, gaeliko irlandarra, gaztelania, grekera, hungariera, ingelesa, italiara, kroaziera, letoniera, lituaniera, maltera, nederlandera, poloniera, portugesa, suediera eta txekiera (1958ko urriaren 6ko Europako Erkidegoen Aldizkari Ofiziala, 17. zk.).

(69) ORDÓÑEZ SOLÍS, D., «Cuestiones lingüísticas y normativas del Derecho Comunitario Europeo», *Revista de Derecho Comunitario Europeo*, 1998, 4. zk., 593. or.

Ministroak proposatu ostean garai hartako EBn erabiltzen ziren 11 lan-hizkuntza 5era soilik murriztea:

«[Europako Parlamentuak] bere konpromisoa berresten du Europar Batasuna osatzen duten herrialde guztien hizkuntza ofizialen eta lan-hizkuntza guztien arteko berdintasunaren alde; izan ere, hori, berez, Europar Batasunaren nozioaren, filosofiaren eta Estatu kideen arteko berdintasunaren oinarritzko osagaia da; horrek, gainera, berretsi egiten du eleaniztasuna dela, batetik, Europako kulturaren eta zibilizazioaren bereizgarrietako bat, eta, bestetik, Europako aniztasunaren eta kultura-aberastasunaren osagai garrantzitsu bat» (70).

Bada, arau bereko bertsio linguistikoaren artean interpretazio-arazoak daudenean, EBAk ere ezarri du Vienako Konbentzioaren antzeko agindua:

«Europar Batasuneko xedapen baten bertsio linguistikoan erabilitako formulazioa ezin da oinarri bakarra izan kasuan kasuko xedapena interpretatzeko, eta horri ezin zaio lehentasunik aitortu beste bertsio linguistikoaren aurretik.

Europar Batasuneko xedapenak era bateratuan interpretatu eta aplikatu behar dira, Europar Batasuneko hizkuntza guztietan idatzita dauden bertsioen arabera.

Europar Batasuneko xedapen baten bertsio linguistikoak bat ez badatoz, kasuan kasuko xedapena interpretatu behar da, berau integratuta dagoen araudiaren egitura orokorraren eta xedearen arabera» (71).

Bestela esanda, EBAk adierazten duenez, «kontuan hartu behar da Europako Erkidegoko Zuzenbideko testuak hainbat hizkuntzatan idatzita daudela eta bertsio linguistiko guztiak neurri berean direla kautoak; beraz, Europako Erkidegoko Zuzenbideko xedapen bat interpretatzeko, bertsio linguistikoak konparatu behar dira» (72).

(70) Europako Parlamentuaren 1995eko uztailaren 19ko B4-38, 52, 60, 75, 110 eta 113/95 Ebazpena, Europar Batasuneko erakundeetan hizkuntza ofizialak erabiltzeari buruzkoa (1995eko otsailaren 20ko Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala C-43. zk.).

(71) 2016ko irailaren 22ko EBAE (3. Sala), C-113/15 Auzia, Breitsamer und Ulrich, 58. oinarria. Zentzu berean, ikusi 1990eko martxoaren 27ko EBAE (6. Sala), C-372/88, Cricket St Thomas, 18-19. oinarriak; 2012ko azaroaren 15eko EBAE (8. Sala), C-558/11, Kurcums Metal, 48. oinarria; 2016ko martxoaren 17ko EBAE (9. Sala), C-112/15, Købbranchens Fællesråd, 36. oinarria.

(72) 1982ko urriaren 6ko Europako Erkidegoko Auzitegiaren epaia, 283/81 Auzia, Cilfit, 18-19. oinarriak.

Dena dela, interpretazioa beti egin behar da EBko Zuzenbidearen berezko irizpideen arabera; hurrean ere, «bertsio linguistikoak guztiz bat etorri arren, Europako Erkidegoko Zuzenbideak terminologia propioa du; horrez gain, nabarmendu behar da kontzeptu juridikoek ez dutela derrigorrean eduki berdina Europako Erkidegoko Zuzenbidean eta zuzenbide nazionaletan» (73).

Hori dela eta, EBko Erregelamenduak, Zuzentarauak edo bestelako xedapenak aztertzean, gaztelaniazko bertsioa bakarrik aztertzea ez da nahikoa interpretazio egokia egiteko.

Areago, Derlének azpimarratzen duenez, interpretazioan zalantzarik sortzen baldin bada, Estatu kideetako epaitegiek, ofizioz zein alderdiek eskatuta, betebeharra dute atzerriko hizkuntzetako bertsioak ere aztertzeke (74).

Esate baterako, EBak Espainia kondenatu zuen Zuzentarau bat txarto barneratzeagatik, bertsio linguistikoaren arteko desberdintasunei lotuta (75).

Gaztelaniaz, honela zioen Kontseiluaren 1985eko ekainaren 27ko 85/337/EEE Zuzentarauak, 1997ko aldaketaren ostean, 2.1 artikuluan:

«Los Estados miembros adoptarán las medidas necesarias para que, antes de concederse la *autorización*, los proyectos que puedan tener efectos significativos en el medio ambiente, en virtud, entre otras cosas, de su naturaleza, dimensiones o localización, se sometan al requisito de *autorización de su desarrollo* y a una evaluación con respecto a sus efectos» (76).

Halatan, Espainiak bi urratsetan egituratu zuen baimenak emateko sistema:

Lehenengo eta behin, ingurumen-agintaritzak irizpena eman behar zuen proiektuaren ingurumen-inpaktuari buruz, eta adierazpen hori argitaratu behar zen (77).

Ondoren, agintaritza eskudunak proiektua gauzatzea baimendu behar zuen. Baina kasuan kasuko proiektua gauzatzea baimentzen edo ezesten zuen ebazpena, berriz, ez zen argitaratu behar (78).

(73) *Ibidem*.

(74) DERLÉN, M., *Multilingual Interpretation of European Union Law*. Erresuma Batua: Kluwer Law International, 2009, 343. or.

(75) 2006ko martxoaren 16ko EBAE (3. Sala), C-332/04 Auzia, Batzordea vs. Espainia.

(76) Kontseiluaren 1985eko ekainaren 2ko Zuzentaraua, proiektu publiko eta pribatu jakinak ingurumenean dituzten ondorioen ebaluazioari buruzkoa (1985eko uztailearen 5eko Aldizkari Ofiziala, L-175 zk.).

(77) Ikusi ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintzazko Errege Dekretua, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzkoa, 4.3 artikuluan.

(78) 2006ko martxoaren 16ko EBAE (ikusi 44. oinarria).

Modu horretara, Espainiak hitzez hitz bete zuen Zuzentarauaren gaztelaniazko bertsioak 9.1 artikuluan ezartzen zuena; hau da, ingurumen-inpaktuari buruzko adierazpena argitaratu behar zen, baina ez, ordea, proiektua gauzatzea baimentzen zuen azken ebazpena:

«Cuando se haya tomado la decisión de conceder o denegar la *autorización de desarrollo* del proyecto, la autoridad o autoridades competentes informarán de ello al público con arreglo a las modalidades apropiadas».

Hala ere, EBAk adierazi zuen Zuzentarauaren gaztelaniazko eta ingelesezko bertsioek baino ez zutela bereizketa egiten «baimena» («*autorización*» edo «*consent*») eta «garapenerako baimena» («*autorización de su desarrollo*» edo «*development consent*») terminoen artean (79).

Bestela esanda, beste bertsio linguistiko guztiek «baimena» terminoa baino ez zuten erabiltzen Zuzentarauaren 2.1 eta 9. artikuluetan (frantsesez, «*autorisation*»; portugesez, «*aprovação*», adibidez) (80).

Hartara, xedapenaren egitura orokorraren eta helburuaren ariora, Espainiak derrigor argitaratu behar zuen kasuan kasuko proiektua gauzatzea baimentzen edo ezesten zuen ebazpena.

Hori dela eta, hasiera batean Zuzentarauaren gaztelaniazko bertsioan itsu-itsuan sinetsi zuen Espainiako legegileak berak 4 bis artikulua gehitu behar izan zion 1302/1986 Legegintzazko Errege Dekretuari, proiektua baieztatzeko ebazpena ere argitaratu behar zela ezartzeko.

Eta eleaniztasunak juristen eguneroko jardunean duen eraginarekin lotuta, Urrutia Badiolak dio «egun erdal jurista ere deseroso eta egonezin dabilela Europari begira, beti-betiko hizkuntza eta hizkera nahiko ez zaizkiolakoan» (81).

Bada, EAEn ere bi hizkuntza ofizial dauden unetik, ez dago arrazoirik erdal jurista «eroso» egoteko, ezta jurista euskaldunak legearen bi bertsioak ez irakurtzeko ere.

(79) 2006ko martxoaren 16ko EBAE (ikus 51. oinarria).

(80) Kasu baterako, frantsesezko bertsioak honela zioen 2.1 eta 9. artikuluetan, hurrenez hurren : «Les États membres prennent les dispositions nécessaires pour que, avant l'octroi de l'autorisation, les projets susceptibles d'avoir des incidences notables sur l'environnement, notamment en raison de leur nature, de leurs dimensions ou de leur localisation, soient soumis à une *procédure de demande d'autorisation et à une évaluation en ce qui concerne leurs incidences*» «Lorsqu'une décision d'octroi ou de refus *d'autorisation* a été prise, la ou les autorités compétentes en informent le public selon les modalités appropriées».

(81) URRUTIA BADIOLA, A., «Jurista euskalduna, jurista elebiduna». ZZAA, *Hizkera juridikoa eta itzulpengintza: euskararen norabideak*. LARRAZABAL BASAÑEZ, S. (koord.) eta OREGI GOÑI, E. (koord.). Bilbo: Deustuko Unibertsitatea-Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2005, 151. or.



### 3. Elebitasun juridikoaren eragina Kanadan, Euskal Autonomia Erkidegoarekin erlazioan

Kanadan frantsesa eta ingelesa dira hizkuntza ofizialak. Eta Kanadako doktrina zientifikoak oso barneratuta dauka lege bereko frantsesezko eta ingelesezko bertsio ofizialak, bi-biak, irakurri beharra dagoela (82).

Egin-eginean ere, Kanadan *la règle d'égalité autorité* edo aginte berdinenaren erregelak aplikatzen da, ingelesez eta frantsesez idatzitako bertsioak bat ez datozenean.

Hala, Bastarachek azaltzen duenez, «bi bertsioek osatzen dute legearen enuntziatua, eta, hortaz, bi-biek dute balio berdina; bertsioetako bat ere ez da beste bertsioaren itzulpentzat hartzen, eta ezin da ulertu bertsioetako bat besteari gailentzen zaionik» (83).

Ildo beretik, Leckeyren hitzetan, «bertsioetako bat ere ez da, izatez, arau; aitzitik, bertsioa, berez, arauaren zentzurako sarbidea baino ez da, eta baliteke, gehienez ere, bertsioa legegilearen asmorako sarbidea ere izatea» (84).

Zentzu berean, McLarenek aitortzen duen bezala, «lege-testuen hitzak ez dira araua, ezpada interpretatzaileek araua bera eraikitzeke duten oinarria» (85).

Aginte berdinenaren erregelak, gainera, badu eraginik juristen eguneroko jardunari begira, Sullivanek baieztatzen duenez:

«Ingelesezko eta frantsesezko adierazpideen artean desberdintasunak egotea saihestezina da; eta horri gehitzen bazaio aginte berdinenaren erregela, orduan herritarrentzat arriskutsua

(82) *Loi concernant le statut et l'usage des langues officielles du Canada* (1988, ch. 38, 1988ko uztailaren 28an berretsia) ; lege horren 13. artikulua arabera, berdina da frantsesko eta ingelesezko bertsioek duten lege-indarra:

«Tous les textes qui sont établis, imprimés, publiés ou déposés sous le régime de la présente partie dans les deux langues officielles le sont simultanément, les deux versions ayant également force de loi ou même valeur».

«Any journal, record, Act of Parliament, instrument, document, rule, order, regulation, treaty, convention, agreement, notice, advertisement or other matter referred to this Part that is made, enacted, printed, published or tabled both official languages shall be made, enacted, printed, published or tabled simultaneously both languages, and both language versions are equally authoritative».

Bestalde, ingelesezko bertsioa frantsesezkoa baino zehatzagoa da, seinale erabateko baliokidetasuna, gehienbat, helburu teorikoa dela.

(83) BASTARACHE, M. *et. al.*, *Le droit de l'interprétation bilingue*. Montreal: LexisNexis argitaletxea, 2009, 29. or.

(84) LECKEY, R., «Harmoniser le droit dans un espace multilingue et plurijuridique: un point de vue canadien», *Uniform Law Review-Revue de droit uniforme*, 2008, 1-2 zk., 45. or.

(85) MCLAREN, K., «Bilinguisme législatif: regard sur l'interprétation et la rédaction des lois bilingues au Canada», *Revue de droit d'Ottawa*, 45. bol., 1. zk., 2015, 55. or.

da bertsio bakar batekin fidatzea, eta guztiz onartezina, interpretatzaile ofizialentzat [adibidez, epailea edo administrazio-organo bateko kideak].

Bi bertsioek gauza desberdina esaten badute, bertsioetako bat ere ezin da hartu legearen adierazpen fidelagoa edo zehatzagoa balitz bezala.

Horren ondorioz, bi-biak irakurri behar dira zentzuz, eta bi-biak hartu behar dira kontuan interpretazio-arazoak ebazteko» (86).

Nolanahi ere, McLarenek onartzen du zuzenbideko profesional asko elebakarrak direla eta, beraz, horientzat arauak ez daudela modu berean eskuragarri. Hala ere, aginte berdinen erregelaren helburua ez da zuzenbide elebakarra eskuragarriago bilakatzea, baizik eta babes osoa bermatzea bi hizkuntza ofizialetan (87).

Halatan, legeak bi hizkuntzetan onesten direnez, eta, hizkuntza ofizialei eskainitako babesaren eraginez, bertsioetako bat ere ezin denez gailendu, orduan aginte berdinen erregela Kanadako legeen interpretaziorako oinarritzeko eta ezinbesteko printzipiotzat hartu behar da (88)

Horrenbestez, «lege elebidunen bi bertsio linguistikoak irakurtzeko egin-beharra, berez, bateragarria da elebitasun ofizialaren helburuekin» (89).

Bada, Kanadako elebitasun juridikoaren ezaugarriak erabat aplikagarriak dira EAEn, egoera biak parekoak direlako; hau da, bi hizkuntza ofizialetan idatzitako lege-testuek balio juridiko bera dute, eta EAEn ere jurista askok ez dakite euskaraz.

#### 4. Elebitasun juridikoaren eragina Euskal Autonomia Erkidegoan

EAEn bi bertsioak bateratzeko agindua eta horren ondorio zuzena, alegia, lege-testuak euskaraz eta gaztelaniaz irakurtzeko ardura, ez da legetara bakarrik mugatzen; izatez, era ofizialean elebitan argitaratzen diren testu juridiko guztietara ere hedatzen da.

Zehatzago, EAEko aldizkari ofizialetan argitaratzen diren sektore publikoko kontratu, jakinarazpen edota hitzarmen kolektibo guztien kasuan, KAK bertsioen interpretazio-arazoetarako ezarri duen agindua bete behar da (90).

(86) SULLIVAN, R., *Sullivan on the Construction of Statutes*. Markhan: LexisNexis, 2008, 98. or.

(87) MCLAREN, K., *op. cit.*, 30-31. or.

(88) *Ibidem*.

(89) *Ibidem*.

(90) Horren adibide, ikusi, besteak beste, ekainaren 26ko 83/1986 KAE, apirilaren 26ko 76/1988 KAE, ekainaren 23ko 123/1988 KAE eta apirilaren 13ko 51/2004 KAE.

Dena dela, KZren 3.1 artikuluko interpretazio-erregelak aztertzeaz gain, kasuan kasuko testu juridikoak berezko dituen interpretazio-erregelak ere hartu behar dira kontuan.

Esate baterako, Bizkaiko Probintziarako Merkataritza Orokorreko Hitzarmen Kolektiboak (2015-2018) 1. artikuluko b) atalean aplikazio-eremu desberdina jasotzen du, euskaraz edo gaztelaniaz irakurriz gero (91):

«B) Erabaki hauek enpresan lan egiten duen (*sic*) langile guztiak hartuko dituzte eraginpean, Administrazio Kontseiluko kideak izan ezik».

«B) Afectarán estos acuerdos a la totalidad del personal que presta sus servicios en la empresa, quedando excluidos, únicamente los miembros del Consejo de Administración y Alta Dirección».

Hortaz, euskarazko testuaren arabera, goi zuzendaritzako langileei hitzarmen kolektiboa aplikagarri bazaie ere, ez da berdina ondorioztatzen gaztelaniazko bertsioa irakurri eta gero: hitzarmen kolektibotik kanpo geratzen dira.

Hitzarmen kolektiboen kasuan, Montoya Melgarek dioenez, lehenik eta behin, interpretazio objektibista egin behar da, hitzarmen kolektiboa araua balitz bezala (KZren 3.1 artikulua), eta modu horretara ezin bada arazoa konpondu, orduan alderdien borondatea azertu behar da (KZren 1281. artikulua) (92).

Eta horretarako, proposatzen du hitzarmen kolektiboa negoziatu bitartean jaso ziren aktetara jotzea (93).

Horren guztiorren ondorioa da, hain zuzen ere, sistema edo esparru juridiko eleanitzetan araua bat eta bakarra izanagatik ere, hainbat hizkuntzatan dagoela adierazita.

Bestela esanda, arau bereko hainbat bertsio linguistiko daude, eta denek osatzen dute araua.

Hori dela eta, EAEn era ofizialean elebitan argitaratutako testu juridikoak oso-osorik irakurtzeko, euskaraz eta gaztelaniaz, bi-bietan, irakurri behar dira beti.

Horrenbestez, eguneroko jardunean, esaterako, epaiketa batean, lege bereko bi bertsio bat ez badatoz, abokatuak horren berri ematen dionean

(91) 2016ko irailaren 28ko BAO, 186. zk.

(92) MONTOYA MELGAR, A., «La interpretación del convenio colectivo», *Revista del Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales*, 2007, 68. zk., 107. or.

(93) *Ibidem*.

epaileari, epaileak, euskaraz ez badaki, betebeharra dauka epaitegiko itzultzaileekin elkarlanean aritzeko.

Modu horretara, epaileak jakingo du euskarazko testuak zer-nolako ñabardurak dituen gaztelaniazko testuaren aldean, eta epaia eman ahal izango du, hizkuntzen koofizialtasuna, Zuzenbidearen adiera bakarraren printzipioa eta segurtasun juridikoa errespetatuz.

Hala ere, hurrengo atalean aztertuko den moduan, antolamendu juridikoak baditu tresnak bertsio linguistiko kontrajarrien kopurua murrizteko.

## V. Bertsio linguistiko kontrajarriak murrizteko tresna juridikoak

Lege bereko bertsio linguistikoak bat ez datozenean, batik bat, segurtasun juridikoa kaltetzen denez, tresnak izan behar dira eskura, ahal den neurrian, behintzat, halako egoerak saihesteko.

Horretarako, mugarriztat hartu behar da kasuan kasuko legea indarrean jartzeko unea, eta bi tresna mota bereizten dira horrela: batetik, legea indarrean sartu baino lehen erabiltzeko neurriak (*ex ante*); bestetik, legea indarrean sartu eta gero erabiltzeko neurriak (*ex post*).

Alde batetik, *ex ante* neurriei dagokienez, teknika legegilearen eginkizuna da, hain justu ere, bi bertsioak baliokideak direla bermatzea.

Hori dela eta, bi hizkuntzetako testuak paraleloan sortzearen alde egin, eta arau-idazketa elebidunaren beharra azpimarratu dute Nikolas Ezkurdiak eta Arana Ibabek:

«Lege-prozeduretan, gure ustez, hizkuntzak eta bere kalitateak trataera sistematikoa eduki behar du eta erakunde guzti hauen artean hizkuntzen kalitatea bermatuko duten bide egonkorrak eratu behar dira, prozeduraren urrats bakoitzean hizkuntzalari eta teknikarien arteko elkarlana bermatuz.

Bide hori da hain zuzen Europar Batasuneko legeria itzultzeko jarraitzen den bidea, besteak beste. Suitzan ere bide horri jarraitzen zaio, Kanadan... Euskal Autonomia Erkidegoak ere bide horri ekin beharko lioke» (94).

Izan ere, Nikolas Ezkurdiaren esanetan, «idazketa-elebidunak oreka bi-latzen du ofizialtasuna eta segurtasun juridikoaren artean»; teknika legegile hori bi printzipiotan egituratzen da:

(94) NIKOLAS EZKURDIA, Z. eta ARANA IBABE, O., «Nomografia eta arau-idazketa elebiduna: Euskadiren eskumenen datu-basea». ZZAA, *Nomografia eta arau-idazketa elebiduna*. URRUTIA BADIOLA, A. (koord.); LARRAZABAL BASAÑEZ, S. (koord.); GALLASTEGI ARANZABAL, C. (koord.); OREGI GOÑI, E. (koord.). Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 2009, 139. or.

- a) Hizkuntza bakoitzean idatzitako lege-testuaren autonomia eta morrontzarik eza.
- b) Bertsio guztien arteko baliokidetasun juridikoa, baliokidetasun linguistikoaz haratago doana (95).

Edonola ere, tarteko bideak ere badaude, adibidez, Biguri Otxoa de Eribe aipatzen duen bezala, arau eta lege-testuak idazten dituzten adituek elebitan idatz dezakete edo, bestela, erdara hutsa erabili arren, gerora aditu horiek itzultzaileek egiten dituzten bertsioen zuzentasuna eta zehaztasuna kontrola dezakete (96).

Era berean, baliokidetasunaren gaineko kontrola egitea ere proposatzen du Aristegieta Okiñenak, baina berak parlamentuko taldeen gain uzten du ardura hori:

«(...) [Parlamentuko talde] bakoitzak gutxienez pertsona bat eduki beharko luke, arduradun gisa, euskarazko testurako, eta pertsona horren lanaren bidez [taldeak] bere iruzkinak egin beharko lituzke euskarazko testuei buruz.

Hau da, itzultzaileak eginiko lana legegileak berariaz kontrolatzea; ez, noski, itzulpenaren kalitatea neurtzeko, baizik eta testua euren nahien arabera dela ziurtatzeko, eta, kontrako kasuan, testu horretan zuzenketak egitea proposatzeko» (97).

Halaber, posible da baliokidetasunari buruzko kontrola araua indarrean jarri arteko denbora-tartean gauzatzea, nahiz eta araua kasuan kasuko aldizkari ofizialean argitaratuta egon; horretarako, berriz, arauaren *vacatio legis* bitartean hutsen zuzenketa argitaratu behar da.

Beste alde batetik, *ex post* neurriei dagokienez, hutsen zuzenketa da gehien erabiltzen den tresna.

Kasu baterako, ekainaren 25eko 5/2015 Legean, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoan, hutsen zuzenketaren bidez gainditu zen 25.3 artikuluan euskarazko eta gaztelaniarazko bertsioen artean zegoen desadostasuna (98).

Arean ere, bi bertsioak ez zetozen bat testamentu mankomunatuetao elkarren mendeko klausulen izaerari buruz:

(95) NIKOLAS EZKURDIA, Z., «Arau-idazketa elebidunaren zergatia». ZZAA, *Hizkuntza Gutxiak Administrazioan / Lenguas Minoritarias en la Administración*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Legebiltzarra, 2010, 326-330. orr.

(96) BIGURI OTXOA DE ERIBE, K. «Elebitasuna Arabako Biltzar Nagusietan». ZZAA, *Eleanitzasuna eta teknika legegilea / Plurilingüismo y técnica legislativa... op. cit.*, 221. or. Ildo beretik, EZQUIAGA GANUZAS, F.J., *op. cit.*, 366. or.: «Ezinbestekoa da organo legegile orok eta, bereziki, Eusko Legebiltzarrek, lege-testuen itzulpenen gaineko kontrol-prozedura antolatzea».

(97) ARISTEGIETA OKIÑENA, X. «Nafarroako Parlamentuko esperientzia». ZZAA, *Eleanitzasuna eta teknika legegilea / Plurilingüismo y técnica legislativa... op. cit.*, 188. or.

(98) 2015eko uztailaren 3ko EHAA, 124. zk.

«Elkarren mendekotzat joko dira testamentugilekidearen xedapenetan izate-arrazoia duten ondare-edukiko testamentuklausulak, kontuan izan gabe batzuek eta besteek egilesle horren edo hirugarren baten aldeko direnez. Elkarmendetasunari *iritzi egiten* zaio, baina egiaztatu daiteke inplizituki ezarri zutela testamentugileek».

Gaztelaniazko testuak, aldiz, azken esaldian hau zioen:

«La vinculación correspectiva o (*sic*) [no] se presume, aunque puede acreditarse que fue implícitamente establecida por los testadores».

Baina hutsen zuzenketaren ondotik, bi bertsioak bat datoz:

«Elkarmendetasunari ez zaio irizten, baina egiaztatu daiteke inplizituki ezarri zutela testamentugileek».

«La vinculación correspectiva no se presume, aunque puede acreditarse que fue implícitamente establecida por los testadores» (99).

Are gehiago, EBn ohiko praktika da hutsen zuzenketak argitaratzea, nahiz eta horien xedea bertsio linguistikoak zuzentzea baino ez izan; hala-koetan, gainera, beren-beregi adierazten da zuzenketen helburua segurtasun juridikoa bermatzea dela (100).

Nolanahi ere, KZren 3.1 artikuluko interpretazio-erregela guztiak kontuan hartuta ere, kontraesana oraindik ere gaindiezina bada, orduan kasuan kasuko artikulua Konstituzioaren aurkakoa da, segurtasun juridikoa urratzeagatik.

Kasu horretan, beraz, Legebiltzarrek, Batzar Nagusiek edo udaletako Osoko Bilkurek xedapen hori berriro eztabaidatzea beste aukerarik ez dago.

(99) Hutsen zuzenketa, honako lege honena: «5/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Euskal Zuzenbide Zibilar buruzkoa» (2016ko maiatzaren 5eko EHAA, 84. zk.).

(100) Adibide gisa, ikusi Batzordearen 2018ko apirilaren 20ko 2018/627 Erregelamendua (EB), honako honen zenbait bertsio linguistiko zuzentzen dituen: «Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1333/2008 Erregelamendua (EE), elikagai-gehigarri buruzkoa» (2018ko apirilaren 24ko Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala, L-104. zk.). Honela dio 1. kontuan hartuzkoak: «Alemanezko bertsioan zuzendu behar dira 12.2 elikagai-kategoriaren izena, eta 0, 01.7.1, 05.2, 11.1, 12.2, 12.2.2, 13.2 eta 17.1 elikagai-gehigarrietako kategorien erabilera-baldintzak (murriztapenak eta salbuespenak), modu horretara, segurtasun juridikoa bermatzeko elikadura-enpresen ustiatzaileei begira, baita barne merkatuaren funtzionamendu ona bermatzeko ere».

Bestalde, KAK adierazi du Estatuko legegileak ez dituela berriaz aurrekusi elebitan era ofizialean argitaratutako lege-testuen interpretazio-arazoak(101).

Zernahi gisaz, bada garaia, hizkuntza-aniztasunaren, Zuzenbidearen adiera bakarraren printzipioaren eta, batez ere, segurtasun juridikoaren izenean, lege-hutsune hori betetzeko.

Eta horretarako, interpretazio-erregelak ezartzeko eskumena Estatuarena denez, KZren 3. artikuluko 1. atalari honen antzerako paragrafo bat gehitu baino ez litzaioke egin behar:

«Hainbat hizkuntza koofizialetan idatzitako bertsioen artean zalantzazko interpretazioak izanez gero, bertsio horiek bateratu egin beharko dira, aurreko paragrafoak ezarritako interpretazio-erregelen arabera, eta betiere bertsioetako bat besteari gailendu gabe».

Horrelako xedapen batek, gainera, badu parekorik Zuzenbide Konparatua. Hain zuzen ere, Belgikan, 1961eko maiatzaren 31ko Legearen 7. artikuluan (102):

«Frantsesezko testuen eta nederlanderazko testuen artean egon daitezkeen desadostasunak legegilearen asmoaren arabera ebazten dira, eta asmo hori interpretazio-erregela arrunten bidez zehazten da, testuetako bat besteari gailendu gabe».

«Les divergences qui peuvent exister entre les textes français et les textes néerlandais sont résolues d'après la volonté du législateur, déterminée suivant les règles ordinaires d'interprétation sans prééminence de l'un des textes sur l'autre».

Dena dela, euskara eta gaztelania hizkuntza koofizial diren artean, bi hizkuntzetan idatzitako bertsioek neurri berean agintzen dutenez, beti aztertu behar izango dira bi bertsio linguistikoak.

Izan ere, lege-testu bereko bertsio linguistikoak ia inoiz ez dira erabat baliokideak, berez, hizkuntza bakoitzak dituen kultura-berezitasunen eraginez, nabarmen zailtzen delako baliokidetasun linguistikoa lortzea (103).

(101) Ekainaren 26ko 83/1986 KAE (ikusi 3. Z.O.).

(102) *Loi du 31 mai 1961 relative à l'emploi des langues en matière législative, à la présentation, à la publication et à l'entrée en vigueur des textes légaux et réglementaires* (1961eko ekainaren 21eko Moniteur Belge, 5171. or.).

(103) MCLAREN, K., *op. cit.*, 30. or.

Eta hizkuntza bakoitzak berezko ibilbidea izateaz gain, berezko ibilera ere baduenez, alferrikakoa da bi hizkuntzen arteko baliokidetasun perfektuaren zain egotea, edozein dela ere unean-unean erabiltzen den teknika legegilea (104).

## VI. Ondorioak

**Lehena.** Komunikazioa hizkuntza batean baino gehiagotan gauzatzen den gizarteetan, oro har, arau eleanitzak sortzen dira. Baina hainbat bertsio linguistiko izanagatik ere, legea bat eta bakarra da. Bada, lege-testu eleanitzen interpretazio-arazoetan du Jurilinguistikak bere azterketa-arloetako bat, baita EAEn ere.

**Bigarrena.** EAEn legeak era ofizialean elebitan argitaratu arren, kon-tuan hartu beharreko bi inguruabar daude, lege-testu bereko bi bertsio linguistiko bat ez datozenean sor daitezkeen arazoak aztertzeko: batetik, nahiz eta gaztelania jakiteko eginbeharra egon, ez da berdina gertatzen euskararen kasuan; bestetik, salbuespenak salbuespen, euskarazko bertsioak itzulpenen ondorio dira, eta IZO arduratzen da bi bertsioen arteko baliokidetasuna bermatzeaz.

**Hirugarrena.** EAEn hizkuntza-aniztasuna, Zuzenbidearen adiera baka-rraren printzipioa eta segurtasun juridikoa bateragarri bilakatzeko, lehenik eta behin, aldizkari ofizialetan argitaratutako lege-testuak neurri berean dira ofizialak eta kautoak, gaztelaniaz zein euskaraz idatzita egon.

**Laugarrena.** Bada, KAK eman du hiru printzipio horiek uztartzeko biga-rren pausua: lege bereko bertsio linguistikoak bateratu behar dira. Horre-tarako, KZren 3.1 artikuluko interpretazio-erregelak aplikatu, eta, horren arabera, zehaztu behar da bertsioetako zeinek islatzen duen hobeto legea-ren benetako esangura.

**Bosgarrena.** Legeetara ez ezik, era ofizialean argitaratzen diren beste testu juridiko elebidunetara ere hedatzen da bertsio linguistikoak bate-ratzeko agindua. Hortaz, jakinarazpen, hitzarmen kolektibo edo kontratu publiko guztietan ere agindu berari erreparatu behar zaio, gaztelaniazko eta euskarazko testuak bat ez datozenean. Halakoetan, gainera, kasuan kasuko testu juridikoak berezko dituen interpretazio-arauak ere aplikatu behar dira.

**Seigarrena.** Modu horretara, Espainiako antolamendu juridikoak bat egiten du Vienako Konbentzioak Nazioarteko Zuzenbidean, EBAk EBko Zu-zenbidean, edota aginte berdinen erregelak Kanadako Zuzenbidean, lege-testu eleanitzen interpretazio-arazoetarako ezarri duten irtenbidearekin.

---

(104) *Ibidem.*



**Zazpigarrena.** Hori dela eta, bere egunerokoan Nazioarteko Tratatu-  
tuen edo EBko Erregelamenduen benetako zentzuaz jabetzeko, ingelesez,  
frantsesez edota alemanez irakurtzera behartuta dagoen jurista bezalaxe,  
EAEn aritzen den jurista ere behartuta dago, berdin-berdin, euskaraz eta  
gaztelaniaz irakurtzera, betiere lege-testu elebidunekin lan egiten due-  
nean.

**Zortzigarrena.** Dena dela, antolamendu juridikoak baditu tresnak lege  
bereko bertsio linguistiko kontrajarriak, ahal den neurrian, behinik behin,  
murriztu ahal izateko. Halako tresnen artean daude, besteak beste, arauen  
idazketa elebiduna, itzulpenen baliokidetasunaren gaineko parlamentu-  
kontrola, edota hutsen zuzenketa. Horrez gain, beharrezkoa da KZren 3.  
artikuluari paragrafo bat gehitzea, Belgikan bezala, KAren agindua legean  
jaso, eta interpretazio-erregela ezartzeko lege-testu eleanitzen kasurako.

**Bederatzigarrena.** Edonola ere, hizkuntza bakoitzak berezko ezauga-  
rriak dituenez, ezinezkoa da, goitik behera, erabat baliokide diren bi ber-  
tsio sortzea, beti egongo direlako ñabardurak hitzen esanahietan. Hortaz,  
euskara eta gaztelania koofizialak diren bitartean, ez dago lege-testuak  
elebitan irakurtzea baino bide egokiagorik, legearen benetako zentzu eta  
norainokoaz jabetzeko.

**Hamargarrena.** Horrenbestez, EAEn dagoen elebitasun juridikoak  
akuilu izan beharko luke jurista euskaldunek euren jardunean euskara  
gero eta gehiago erabiltzeko, baliokideak izan daitezen antolamendu juri-  
dikoak euskarari aitortzen dion balioa eta eguneroko praktikak gaur egun  
aitortzen diona.

## VII. Bibliografia

- AGIRRE BEREZIBAR, J.M., «Euskara Eusko Legebiltzarraren jardun ofizia-  
lean». ZZAA, *Eleaniztasuna eta teknika legegilea / Plurilingüismo y técnica  
legislativa*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Legebiltzarra / Euskal Gaien Institutua,  
Deustuko Unibertsitatea; 2001.
- AGIRRE GARAI, J., «Euskarazko itzulpen juridiko-administratiboan balio ofi-  
ziala», Senez: itzulpen aldizkaria, 1997ko urtarrila.
- AGIRRE GARAI, J., «Legegintzako teknika eta idazketa elebiduna instituzioe-  
tan». ZZAA, *Eleaniztasuna eta teknika legegilea / Plurilingüismo y técnica  
legislativa*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Legebiltzarra / Euskal Gaien Institutua,  
Deustuko Unibertsitatea; 2001.
- ARISTEGIETA OKIÑENA, X., «Nafarroako Parlamentuko esperientzia». ZZAA,  
*Eleaniztasuna eta teknika legegilea / Plurilingüismo y técnica legislativa*.  
Vitoria-Gasteiz: Eusko Legebiltzarra / Euskal Gaien Institutua, Deustuko  
Unibertsitatea; 2001.
- ARRIETA IDIAKEZ, F.J., «Euskara modu egokian erabiltzen ote da zuzenbi-  
dean?», *Deia*, 2016ko abenduaren 2a.

- BASTARACHE, M. *et. al.*, *Le droit de l'interprétation bilingue*. Montreal: Lexis-Nexis argitaletxea, 2009.
- BIGURI OTXOA DE ERIBE, K., «Elebitasuna Arabako Biltzar Nagusietan». ZZAA, *Eleaniztasuna eta teknika legegilea / Plurilingüismo y técnica legislativa*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Legebiltzarra / Euskal Gaien Institutua, Deustuko Unibertsitatea; 2001.
- BLOA (Ebaristo Bustinzaren goitzena), «Bilbo-ko euskaldunentzat». *Ibaizabal*, 1902, 3. zk.
- DERLÉN, M., *Multilingual Interpretation of European Union Law*. Erresuma Batua: Kluwer Law International, 2009.
- DOUCET, M., «Le bilinguisme au Canada et son effet. Impact sur les techniques de rédaction législative». ZZAA, *Eleaniztasuna eta teknika legegilea / Plurilingüismo y técnica legislativa*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Legebiltzarra / Euskal Gaien Institutua, Deustuko Unibertsitatea; 2001.
- DUARTE I MONTERRAT, C., «Textos bilingües». ZZAA, *La calidad de las leyes*. SÁINZ MORENO, F. (koord.) eta DA SILVA OCHOA, J.C. (koord.). Vitoria-Gasteiz: Eusko Legebiltzarra, 1989.
- DUARTE I MONTERRAT, C., «Los retos de la traducción legislativa: la experiencia de Cataluña». ZZAA, *Eleaniztasuna eta teknika legegilea / Plurilingüismo y técnica legislativa*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Legebiltzarra / Euskal Gaien Institutua, Deustuko Unibertsitatea; 2001.
- EDEN, P., «Plurilingual treaties: aspects of interpretation». *40 years of the Vienna Convention on the Law of Treaties*. ORAKELASHVILI, A. eta WILLIAMS, S. (editoreak). Londres: British Institute of International and Comparative Law, 2010.
- ERKOREKA GERVASIO, J.I., «Euskararen erabilpena araukotezko», *Revista Vasca de Administración Pública - Herri Arduralaritzako Euskal Aldizkaria*, 1992, 33. zk.
- EUSKALTZAINDIA, *Hizkuntza-zuzenbidea: Testu-bilduma euskaraz*. Bilbo: Euskaltzaindia, 2007.
- EZQUIAGA GANUZAS, F.J., «Algunas cuestiones sobre multilingüismo e interpretación jurídica». ZZAA, *Euskararen lege-araubideari buruzko jardunaldiak / Jornadas sobre el régimen jurídico del euskera*. COBREROS MENDAZONA, E. (koord.). Oñati: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 1990.
- FABEIRO FIDALGO, P., *El derecho de usar y el deber de conocer las lenguas en la Constitución Española de 1978*. 1. argitaraldia. Madril: lustel, 2013.
- LECKEY, R., «Harmoniser le droit dans un espace multilingue et plurijuridique: un point de vue canadien», *Uniform Law Review-Revue de droit uniforme*, 2008, 1-2 zk.
- LÓPEZ BASAGUREN, A., «El pluralismo lingüístico en el Estado Autonomo», *Autonomies: revista catalana de dret públic*, 1988, 9. zk.
- MCLAREN, K., «Bilinguisme législatif: regard sur l'interprétation et la rédaction des lois bilingues au Canada», *Revue de droit d'Ottawa*, 2015, 45. bol., 1. zk.
- MILIAN MASSANA, A., «La regulación constitucional del multilingüismo», *Revista Española de Derecho Constitucional*, 1984, 10. zk.

- MONTOYA MELGAR, A., «La interpretación del convenio colectivo», *Revista del Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales*, 2007, 68. zk.
- NIKOLAS EZKURDIA, Z. eta Arana Ibabe, O., «Nomografía eta arau-idazketa elebiduna: Euskadiren eskumenen datu-basea». ZZAA, *Nomografía eta arau-idazketa elebiduna*. URRUTIA BADIOLA, A. (koord.); LARRAZABAL BASAÑEZ, S. (koord.); GALLASTEGI ARANZABAL, C. (koord.); OREGI GOÑI, E. (koord.). Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 2009.
- NIKOLAS EZKURDIA, Z., «Arau-idazketa elebidunaren zergatia». ZZAA, *Hizkuntza Gutxiak Administrazioan / Lenguas Minoritarias en la Administración*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Legebiltzarra, 2010.
- ORDÓÑEZ SOLÍS, D., «Cuestiones lingüísticas y normativas del Derecho Comunitario Europeo», *Revista de Derecho Comunitario Europeo*, 1998, 4. zk.
- PUNSET BLANCO, R., «Algunas cuestiones controvertidas en materia de cooficialidad lingüística». VERNET I LLOBET, J. eta PUNSET BLANCO, R., *Lenguas y Constitución*. 1. argitaraldia. Madril: lustel, 2007.
- SOLAN, L.; STEIN, D.; TIERSMA, P., «Introducing «Language & Law»», *International Journal of Language & Law*, 2012, 1. zk.
- SPARER, M., «La stéréophonie législative, facteur de haute infidélité?», *Les Cahiers de Droit*, 1980, 21. zk.
- SULLIVAN, R., *Sullivan on the Construction of Statutes*. Markhan: LexisNexis, 2008.
- URRUTIA BADIOLA, A., «Euskararen jurilinguistika: alor berria ote?», *Jado: Boletín de la Academia Vasca de Derecho-Zuzenbidearen Euskal Akademiaren Aldizkaria*, 2005, 7. zk.
- URRUTIA BADIOLA, A., «Jurista euskalduna, jurista elebiduna». ZZAA, *Hizkera juridikoa eta itzulpengintza: euskararen norabideak*. LARRAZABAL BASAÑEZ, S. (koord.) eta OREGI GOÑI, E. (koord.). Bilbo: Deustuko Unibertsitatea-Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2005.
- URRUTIA BADIOLA, A., *Lengua vasca, cooficialidad lingüística y relaciones jurídicas inter privados. Análisis desde la perspectiva del euskera en el Derecho privado español, en el francés y en el de la Unión Europea*. Bilbo: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2016.